

LANGILE MURRIZKETA EZ DELA TRAUMATIKOA IZANGO BERRETSI DUTE BI PRESIDENTEEK

«BBVAk arrazoi historikoengatik izango du egoitza Bilbon», adierazi du Ibarrak

■ Emilio Ibarren esanetan, «egoitzaren afera ez da garrantzi handiko gaia izan niretzat»

■ Burtsen harrera hotza izan zen; lehen igoerak etekinak lortzeko aprobetxatu zituzten inbertsoreek

■ Alderdi politiko batzuk, —EH eta IU— ez dute begi onez ikusten bi bankuen arteko fusioa


Erredakzioa / Donostia

Emilio Ibarrak BBVAren presidentetako batek ez zion garrantzi handirik eman egoitzaren aferari. «Egoitzak balio historikoa du, baina hori bakarrik. Niretzat ez da izan garrantzi handiko gaia. BBVren nahiak errespetatu egin ditut, Euskal Herrian sustraiturik dagoelako, eta hori oso ondo iruditu zait», adierazi zuen atzo.

Bat-egitea bi bankuentzat, akziodunentzat eta herritarrentzat erabaki ona dela esan ondoren, Ibarrak adierazi zuen langile taldearen birrantolaketa ez dela traumatikoa izango. Modu berean hitz egin zuen Francisco Gonzalez BBVAren beste presidentea ere.

Aurretik izandako beste murrizketak gogoratu zituen eta sindikatu eta enpresaren arteko harremanak onak direla gaineratu zuen. «Merkatura egokitu behar dugu, lehiatu behar dugu. Ez bakarrik Espainian, baita Europan eta munduan ere. Une bakoitzean beharrezkoak diren baliabideak izan behar ditugu», esan zuen.

Bestalde, Gonzalezek lehentasuna eman zion partaidetza industrialaren murrizketari, eta ukatu egin zuen berankortasuna dagoenik elektrizitate alorrean.



MG / EFE

Emilio Ibarrak garrantzia kendu zion BBVAren egoitzari buruzko aferari.

Burtsak harrera hotza egin zion bat-egiteari

Burtsak ez zion harrera ona egin atzo Argentaria eta BBVren bat-egiteari, inbertsoreek hasierako igoerak etekinak lortzeko aprobetxatu baitzituzten. Hala, BBV 13,01 eurotan itxi zuen kotizazioa (2.165 pezeta eta 86,6 libera), %1,56ko igoerarekin, lehenengo minututan %4,53 igo bazen ere. Argentaria, berriz, okerrago atera zen %1,38eko jaitsierarekin itxi baitzuen. 21,39 eurotara (3.559 peseta

eta 142 libera) jaitsiz. Egunean zehar %5,66 igotzera heldu zen zenbait unetan.

Jakitunen ustez, Argentiariako akziodunek baldintza hobeagoak espero zituzten bi bankuen negoziazioan.

Bankuen kontzentrazioa

BBV eta Argentariaren bat-egitea ez da begi onez hartu zenbait alderdi politikoetan. EHren ustez, bat-egitea «azken urteotan Europako eta munduko bankuen kon-

tzentrazio prozesuaren barruan sartzen da». «Gizartearen gehiengoaren beharren gainetik, interes ekonomiko konkretuak bilatzen dituzte», adierazi zuen EHk idatzi batean. Aldi berean, dei egin zion BBVAri bere politika finantzario eta inbertsioena aldatzeko.

Iuko koordinadore nagusi Julio Angita ere bat-egitearen kontra azaldu zen, azkenean «langileen kalterako direlako» eta guztiak «langileak kanporatuz» amaitzen dutelako.

Langileen lan baldintzen homologazioa eskatu du CCOOk

■ CCOO-KO Zerbitzu Finantzieroen Federazioak BBV eta Argentariako langileen lan baldintzen homologazioa eskatu du entitatearekin datorren astean hasiko dituzten negoziazioetan. CCOO sindikatu nagusia da sektorean.

Federazioko idazkari nagusi Maria Jesus Paredesek adierazi zuenez, bat-egitearen protokoloak «langile guztientzat baldintza

ekonomikoak eta aukerak bermatu behar ditu». «Mestizajetaz» jo zuen plantilaren bat-egitea eta gaineratu zuenez, «mestizajea ez da batere erraza, beti kultura batek beste bat bereganatzen duelako. Beraz, kontuz ibili behar da».

Paredesen iritziz, bankuko ordezkariak «bat-egite ofentsiboa planteatu dute eta jubilazio planekin jarraituko dute».

Intxaurragak uste du bi bankuek enpleguari eutsiko diotela

■ EUSKO JAURLARITZAKO Lan sailburu Sabin Intxaurragak ez du uste BBV eta Argentariaren bat-egiteak lanpostuak murriztuko dituenik.

BBVko kontseilari delegatu Pedro Luis Uriartek bi bankuetan enpleguak errespetatuko direla esan zuen. Horregatik Lan sailburuak BBVko delegatuegan konfiantza azaldu zuen: «ez dut uste lanpos-

tuak arriskuan egon daitezkeenik hasiera batean».

Hala ere, sindikatuen kezkak ulertzen dituela adierazi zuen. Izan ere, mota horretako operazioetan murrizketak izaten dira lanpostuetan.

Bestalde, Bizkaiko diputatu nagusi Josu Bergarak txalotu egin zuen bat-egitea, «enpresa finantzarioak merkatu globalean egokitzen dituelako».

BBV 139.336 milioiko etekinak izan ditu iraila arte eta Argentariak 66.100 milioikoak

■ BBVAk 7 bilioiko ondarea gestionatuko du inbertsio fondoetan

Agentziak / Donostia

BBV-K 139.336 milioi pezetako etekinak lortu ditu aurtengo lehenengo bederatzi hilabeteetan (5.573 milioi libera), iazko epe berean baino %25,1 gehiago. Bitartekaritza margena —dirua emateagatik eta depositoak lortzeagatik sortzen diren irabaziak neurtzen ditu— 537.228 milioi pezetakoa izan da, iaz baino %5,3 gehiago.

BBVren aktiboak, berriz, 24,3 bilioi pezetakoak izan dira eta kredituetan egindako inbertsioa 11,1 bilioi pezetakoa.

Argentariak, berriz, 66.100 milioi pezetako (2.644 milioi libera) etekinak lortu ditu iraila bitartean, iazko epe berean baino %17,1 gehiago. Bere bitartekaritza margena %4,6 igo da aurtun, 176.002 milioi pezetakoa.

Inbertsio fondoak

Bestalde, BBV eta Argentariako inbertsio eta burtsa elkarteek 7 bilioi pezetako ondasuna gestionatuko dute inbertsio fondoetan. BSCHk eta BBVAk Espainian fondotant jartzen den diruaren ia erdia kontrolatuko dute.

Inverco, inbertsio kolektiboaren elkarteak emandako datuen arabera, irailaren 30 arte BSCHk eta BBVAk gestionatzen duten ondarea 15,18 bilioi pezetakoa da, hau da, Espainian inbertsio fondotan dauden 34,14 bilioietako %44,46.

Hala ere, lehen postua BSCHk du ondasunei dagokionez, izan ere aurtengo lehen bederatzi hilabeteetan 8,18 bilioi pezetak kontrolatzen ditu, guztia %24. Fondo aktiboetan BSCH taldea ere lehen postuan dago 277 fondokin eta bere atzetik BBVA gelditzen da 252 fondokin. Burtsako elkarteak, BBV Interactivos eta Argentaria Bolsa, 10.463 milioi pezetako etekinak lortu dituzte lehen sei hilabeteetan.